

IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA

Zaintza erdigunean



Kaixo herrikide!!!

Urtea bukatzeaz den honetan, azken hilabeteetan gertatutakoak kontatze-
ra gatoz. Greba Feminista Orokorra
izan dugu tartean eta zaintza erdigu-
nean jartzeko garaia dela aldarrikatu
dute hainbat eta hainbat igeldotarrek.

Bestalde, Igeldoko TET sortzeko
bidean beste pauso batzuk eman
dira eta ondo bidean, udaberrirako
sortzea espero da. Eta aurretik,
beste sorrera bat ere izan da; koope-
ratiba energetikoarena, hain zuzen.

Horrez gain, Ion Zendoia Beaumont
albaitariari egindako elkarrizketa
bildu dugu, bere lana ezagutzeko
asmoz.

Honaino aurtengoak, 2024 urtean
jarraituko dugu!

Hasi da Neguko Pala Txapelketa

Azaroaren 24an hasita, martxan
dago aurtengo Neguko Pala
Txapelketa. Martxoaren erdira
bitarte jokatu dira partiduak,
ostiral eta larunbatetan. Ostira-
letan 3 partidu jokatu dira

18:00etan hasita eta larunbatetan
4 partidu 9:00etan hasita.

Denera, 43 bikote izango dira
lehian. Mutiletan, lehenengo mai-
lan 6 bikotek hartuko dute parte
eta bigarren mailan, 20 bikotek.

Nesketan, berriz, 17 bikote ariko
dira nor baino nor.

Txapelketarekin giro pixka bat
izango dela frontoian eta herrita-
rrei gerturatzeko deia luzatzen
diete antolatzaileek.

Teknologiak euskaraz ikasi dezan, eman zure ahotsa!

Gaitu proiektua aurkeztu zitzaien herritarrei eta parte hartzeko deia egin
zen. Nahi duenak aukera du: 'gaitu.eus'.

Abenduaren 3an Euskararen Eguna
izan zen eta egunaren bueltan hain-
bat ekintza antolatu ziren herrian.
Horien artean, Gaitu proiektuari
buruzko azalpenak eman zituzten
antolatzaileek Itsas Aurren.

Gaitu proiektuaren helburua da
adimen artifizialak edo teknologiak
euskaraz egitea. Makinek euskara
ulertu eta hitz egin dezaten, lehe-
nengo irakatsi egin behar zaie.
Horretarako, milaka ahots eta mila-
ka grabazio behar dira euskaraz.
Gaituren weborrian sartuz, graba-
zio horiek egiteko aukera dute
herritarrek. Pauso horiek nola
eman azaldu zuten, besteak beste.
«Oso erraza da eta nahi duenak
grabazio horiek egin ditzake mugi-
korrarekin. Sartu eta probatu:
gaitu.eus».

Beste ekintzen artean,



'Simpsondarrak' pelikula ikusteko aukera izan zen abenduaren 1ean.

Simpsondarrak pelikula ikusteko
aukera izan zuten umeek eta
sukaldaritzatzaileek ere egin zuten.
Krepe eta fruta-brotxeta mundialak
prestatu zituzten!

Igandean, Euskararen Egunean,

Luze edo Motz bakarrizketaz gozatu
zuten Itsas Aurrera bertaratutakoek.
Gogotik egin zuten barre Idoia
Torregarai eta Mirari Martiarenaren
ateraldiekin. Ondoren, kantu-jira
egin zen jubilatuen eskutik.

Igeldoko TET sortzeko bidean, Plenoaren onarpenaren zain

Igeldoko Tokiko Entitate Txikia sortzeko azken pausoak besterik ez dira geratzen. Urriaren 10ean Donostiako Udaleko Gobernu Batzordeak onartu zuen adostutako proposamena eta ordutik azaroren 28ra bitarte alegazioak aurkezteko aukera egon da. Tarte horretan, ez da alegaziorik aurkeztu (Herri Kontseiluari azaldu diotenez) eta orain, Plenoaren onarpenaren zain geratu da (urtarrila bukaeran izatea aurreikusten da).

Plenoaren onarpena jasotzean, herritarren txanda izango da. Galdeketa egingo zaie igeldotarrei. Emaidza ez da loteslea izango,

baina bai garrantzitsua Foru Aldundiak erabakia hartzeko. Galdeketaren ondoren, Foru Aldundiak erabakiko du Tokiko Entitate Txikia eratu edo ez.

Bitartean, lanak aurreratzen

Pauso guztiak aurreikusi bezala ematen badira, Igeldoko TETa udaberrirako sortuta egongo litzateke. Hori horrela, Herri Kontseiluko kideek lanean jarraitzen dute Udaleko teknikariekin. Zerbitzuen kontratuak aztertzen ari dira, alde batetik, eta bestetik, langile eta antolaketa kontuekin. TETa sortu ahala martxan izatea da helburua.

Bulegoak Itsas Aurren

Hasiera batean, Eskola Zaharra konpondu bitartean, TETeko egoitza eliza atzeko lokalean jartzea zen asmoa. Dena dela, elizak aurrera biderik eman ez duela ikusita, bulegoak Itsas Aurren jartzea erabaki du Herri Kontseiluak. Hori horrela, moldaketak izango dira espazioaren antolaketan. Udalak diruz lagunduko du.

Konponbide hau hasierako urte-etarako izango da, baina helburua Eskola Zaharra ahalik eta azkarren konpontzea da Herri Kontseiluarantz, Udalak hartutako konpromisoa betetz.

Ilargia, Jupiter, Saturno... aztertu eta ikusteko plana, abenduan


Abenduaren 12tik aurrera izango da aukera izena emateko Gazteria sailean.

Donostiako Udaleko Gazteria sailak antolatuta, astronomia saioa egingo da Igeldon abenduaren 22an. Alde batetik, umeentzako tailerra izango da 16:30etatik 18:00etara Itsas Aurren. Eta bestetik, 18:30etan behaketa egingo da Undermounten terrazan (kasu honetan, ume, gazte eta helduentzat izango da). Aranzadikoen eskutik izango dira tailerra eta behaketa.

Adierazi dutenez, egun aproposa izango da behaketa egiteko, Ilargia eta Jupiter alineatuak egongo direlako eta Saturno oso gertu egongo delako. Aranzadiko teleskopioekin ikusteko aukera izango da.

Izena eman behar da

Gazteria Saitetik jakinarazi dute



Saturno ohi baino gertuago egongo dela jakinarazi dute Aranzaditik.

partehartzaile kopurua mugatua izango dela eta izena eman behar dela aurrez. Izen ematea abendua-

ren 12an irekiko dute Gazteria saileko webgunean. Herriko WhatsApppean zabalduko da lotura.

Kexak adierazi zaizkio Udalari autobusa eta Marabieta bidearekin

Igeldoko autobus zerbitzuaren inguruan kexak ugaritu dira azken hilabeteetan eta herritarrekin biler bat egin zuen Herri Kontseiluak urriaren 26an. Bertan, Dbusi bilera bat eskatzea erabaki zen. Herri Kontseilua azaroaren 7an bildu zen Dbusiko arduradunekin eta herritarren haserrea adierazi eta arazoa konpontzeko eskatu zien. Alternatiba desberdinak proposatu ziren bileran eta aztertzeotan geratu ziren Dbusiko arduradunak.

Abenduaren 11n izango dute

hurrengo bilera. Dena dela, urrian nahiko ondo funtzionatu zuela eta azarotik aurrera autobusaren zerbitzua ona izango zela adierazi zuten Dbuseko kideek eta ordutegia beteko zuela. Hori horrela ez dela arrazoitzeko, Herri Kontseiluak inzidentziak erregistratzeari ekin dio eta herritarrek egunero eman diote kexaren baten berri.

Marabieta bidea hobetzeko eskaera

Marabieta bidearen egoera dela

eta, inguruko bizilagunek sinadura bilketa egin zuten urrian eta udaletxean aurkeztu zuten eskaera. Herri Kontseiluak ere bat egin zuen bizilagunen eskaerarekin. Marabieta bidea arriskutsu dago gaur egun, Santio bidea izanik, jende asko ibiltzen delako, autoek gurutatzeko lekuri ez dutelako eta horrez gain, mantenu lanak maiztasun gutxirekin egiten direlako (bide bazterretako garbiketara). Hori horrela, egoera salatu eta hobetzeko eskaera egin da.

Energia komunitatearen parte

Herritar talde batek bultzatuta, Igeldon energia komunitatea sortzeko urratsak ematen ari dira. Hain zuzen, abenduaren 1ean kooperatiba sortzekoak ziren. Horren aurrean, Herri Kontseiluak adierazi

du proiektu hau gauzatu ahal izatea garrantzitsua dela. Horregatik, kooperatibako bazkide izan eta diru ekarpen bat egitea erabaki du. Aldi berean, herritar guztiei deia luzatzen die kooperatibako parte izatera:

«Guztiok parte hartuz, Igeldo ere energia burujabetzara bidean jarri dezagun!». Informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan energia komunitateko kideekin: igeldokoekb@gmail.com.

Igeldoko proposamenak ez dira aurrera atera

Donostiako Udaleko Partaidetzazko Aurrekontuetan Igeldoko bost proposamen pasa ziren azken fasera; hau da, bozketa fasera. Azken fase honetan, ordea, proposamen bakar batek ere ez du nahikoa botorik lortu aurrera egiteko.

Bestalde, orain dela bi urte egindako kanpaina, hiru proposamen onartu ziren eta urte honetan egitekoak ziren: Pilotegi bideko beheko zatia asfaltatu, Pokopandegi bidea egokitu eta frontoian ura ez sartzeko lanak egin. Udaletik jakinarazi dutenez, lehenengo biak urte honetan egingo dira, baina frontoiko lanak datorren urtera atzeratuko dira.



Espaloia, azkenean, sei hilabeteko epean

Aurten egingo zela esan arren, azaroaren 21ean onartu zuen Udaleko Gobernu Taldeak obra proiektua Igeldoko kaxkoa eta kanpina lotuko dituen espaloia egiteko. Orain, lanak lizitatu behar dituzte eta sei hilabeteko epean gauzatu dituzte obrak. Aurrekontua 1.586.050 eurokoa izango da.

Grebarekin bat, zaintzaren inguruko hausnarketa egin zen

Eguraldi txarra egin arren, azaroaren 30eko Greba Feminista Orokorreko deialdiari erantzunez, hainbat herrikide elkartu ziren.

Goizeko lehen ordutan autobusak geratu zituzten, Igeldora zetozen langileei grebako informazioa eta gonbita luzatzeko. Jarraian, Itsas Aurren mahai baten inguruan kafea hartuz egitarauari hasiera eman zioten. Grebaren aldarriarekin bat egin ez zuten zaintza erdigunean jarri zuten, haren inguruan hausnartuz, baita dagoen krisia landuz ere. Ohikoa denez, bazkari eder batekin borobildu zen goiza eta indarrak hartu zituzten manifestaziora jaisteko.

Partaideen balorazioa oso positiboa izan zen eta aurrera begira elkartzen jarraitzeko gogoak adierazi zuten.



BEARTZANA

Igeldon bazegoen janari-denda bat, elizaren aldamenean. Beartzana deitzen zela zioen hormatik espaloi gainera irteten zen kartelak. Inork gutxi ezagutzen zuen izen horrekin, jakina. “Denda” zen eta kito. Santa Martakoek jarri zuten eta alaba Olatzek egiten zuen lan, artean gaztetxo zela. Denda eskuz esku ibili zen gero: Loli, Marabietako Pili eta azkenak, kubatar senar-emazteak. Azken horiek etxebizitza bezala erabili zuten, gainera. Andresek igandetan cowboy-kapela dotore bat jazten zuela gogoratzen dut, zaldiz ibiltzera joateko. Keniak berriz, manikura egiten zion eskatzen zion edonori.

Itxi zen denda, “azken orduokekin” ezin bizi daitekeelako, Andresek zioen bezala. Behar zena, behar genuenean geneukan eta listo; asteko erosketak beste nonbait egiten genituen.

Joan ziren senar-emazteak eta hormatik zintzilikatzen zen kartela erori egin zen. Duela gutxira arte ibili da, dinbili-danbala, haizeak dantzan, gurdi zaharrak ateratzen duen doinu negartian. Orain ez dago ez kartelik ez dendarik; nonbait bizi da.

Orain IKO daukagu. Handiagoa. Anitzagoa. Hurbileko produktuekin, ahal dela. Marka askorik ez dago, baina oinarrizkoak diren —eta oinarrizkoak ez diren baina goxo-goxoak dauden— produktuak daude. Oihanak, Jexuxek eta Ekhik egiten

dute lan, bertatik bertara. Batzuk konpromisoa hartu genuen dendan xoxak xahutzeko, “azken orduokekin” bizi ezin daitekeela ikasi dugulako. Asteko erosketak egiten dugu, beraz, eta denda mantentzen. Eta gustua ematen du gaztetxo-koadrila kanpoko mahaian artoa jaten ikustea; gustua, ez-hain-gaztetxo-den koadrila kafea hartzen ikustea, barruko sofan, ttor ttor. Bizitza ematen dio herriari, bazkide izan ala ez. Eta behar duguna, behar dugunean daukagu, eroso.

Arrain handiaren sabelean gehiago sartzen dela badakit, baina arrain txikirik gabe itxasorik ez da. Eros dezagun IKOn, “azken orduko” horiek eta pixka bat gehiago.

Txintxu



Ion Zendoia NEIKEReko laborategian lanean.

ION ZENDOIA BEAUMONT ALBAITARIA:

«*Coxiella* bakterioa aztertuz jakin nahi dut zeinek eta zenbaterainokoa duen arriskua Q sukarrak kutsatzeko»

Ion Zendoia Beaumont igeldoarra da, Joxe Angelen eta Mari Joserren semea; Gure Kayolakoa, alegia. Igeldoko Herri ikastetxean ikasi zuen 12 urtera arte, Luberrira ondoren eta handik Zaragozara, unibertsitatera, al baitaritza ikastera.

Gaur egun 29 urte ditu eta lana dela-eta, Bilbon bizi da. NEIKERen dabil, *Coxiella burnetii* izeneko bakterio bat ikertzen.

Euria ari du goitik behera, baina Ion oinez etorri da. Din-dinen elkartu gara, bertako babesean lasai hitz egiterik badago eta. Halaxe egin dugu. Luze eta zabal hitz egin dugu behiez, bagina-fluxuez, osasunaz, zientziaz, euskaraz... eta irribarre atsegin bat izan du une oro.

Urriaren 14an Markinan ikusi zintugun, Euskal Herriko Blonda Txapelketan, hainbat sari jasota,

aitarekin eta beste hainbat seniderekin; etxean ikusia hura ikasia?

Bai, beti animalia tartean ibili izan naiz etxean eta al baitaria etortzen zenean, jakin nahia izaten nuen, ea zer egiten zuen, nola... Eta gainera, animalien dokumental pila bat ikusten nuen txikitari; pentsa, Afrikara joateko ametsa neukan!

Baina behiek badute zerbait... produkzioarako izan ohi dira, bai, baina badute xarma berezi bat, zerbait

gehiago dira, niretzat.

Bada, behiak gaixo daude, Ion, eta zu albaitaria zara, zer dute?

Behiak itzalita ikusten dira, triste, sudurra ezkartzten zaie, ahoan ultzerak ateratzen zaizkie... Gaixotasun hemorragikoa dute, euli batek daraman birus batek sortzen duen gaixotasuna. Hasieran pentsatzen zutena baino abere gehiago hiltzen ari da.

Hala ere, nik ez dut kasurik ikusi, irakurri dudana gatik ari naiz: lizentziatu nintzenetik ez dut diagnostikorik egiten, errespetu handia emango lidake gaur egun abereek zer duten asmatu beharko banu.

Animaliak sendatzen ez badituzu, zertan aritzen zara?

Ibili naiz txakur eta katuak sendatzen, behiak... baina gaur egun NEIKERen nabil, *Coxiella burnetii* deitzen den bakterio bat ikertzen.

Bakterio bat! zergatik da hori interesgarria?

Coxiella burnetii Q sukarra sortzen du eta abereak zein pertsonak gaixotzen ditu; hau da, poltsikoa eta osasuna kaltetzen dizkigu.

Abereei sortzen die abortua, mastitisa, ernal ezintasuna... Eta gizakiari pneumonia eta beste sintoma arrunt batzuk. Horregatik da zaila detektatzen, sortzen dituen sintomak katarro batenak ere izan daitkezkeelako, baina ondoren konplikatu egin daitezke. Beste batzuetan, aldiz, ez du inolako sintomarik sortzen, baina bakterioa gurekin bizi daiteke urte asko eta halako batean gerra ematen hasi. Horregatik, garaiz detektatuz gero, tratamendu egokia garaiz

hasi daiteke eta pronostikoa hobea da.

Gaixotasun hau ez da oso zaharra, 1935ean deskribatu zen lehen aldiz Australian, baina gure lurraldean endemikoa da, esan nahi dut, gure artean modu iraunkorrean dagoela, nahiz eta jende asko ez den gaixotzen. Nire inguruan ezagutu ditut batzuk.


Orduan, zu bakterio horren bila ibiltzen zara?

Hori da. Ustiategietako (ardiak, ahuntzak...) laginak dauzkagu eta hor bilatzen ditut bakterioak; animalia basatien laginak ere baditugu, basurdeena, orkatzena... Gorotzak izaten dira, esnea eta baginako fluxutik ateratako laginak; baita ere izaten dira ukuiluko zein inguruetakoa gainazaletatik hartutako hautsa.

Kontuan izan, *Coxiella* bakterioa airez kutsatzen dela eta inork arnasten ez baldin badu, lurrera –gainazaletara- erortzen dela; bertan bi urte bizi daiteke, espora moduan! Orduan, laginak gainazaletatik eta airetik hartu behar izaten dira. Aspiradora bat erabiltzen dugu horretarako eta ondoren, prozesatu eta PCRa egiten diet, laginetan jasotako partikuletan bakterioak dauden jakiteko.

PCRa? hori ezaguna zaigu!

Bai, azkenean, PCRa DNA- edo RNA-zatiak detektatzeko teknika bat da, besterik ez. Berari esker jakin dezakegu batetik, nik sartu diodan laginean *Coxiellaren* arrastorik ba ote dagoen eta bestetik, dagoen kasuetan, zenbat dagoen. Eta niri bakterioaren DNA edo informazio genetikoa da interesatzen zaidana zehazki. Hori aztertuz, nire asmoa da jakitea zeinek eta zenbaterainokoa duen arriskua Q sukarrak kutsatzeko.



“ *Coxiella burnetii* Q sukarra sortzen du eta abereak zein pertsonak gaixotzen ditu ”

Orduan, nola irudikatu behar zaitugu lanean: ordenagailuaren aurrean eserita; bata zuria jantzita, pipeta eskuan; gorbata jantzita, jendaurrean; ala mendiko botak jantzita, ahuntzen artean?

(Barre egin du) Bereziki lehenengo biak! Laginak laborategian izaten ditut eta ordenagailuan datuak prozesatu eta txostenak eta artikulua idatzi egiten ditut.

... zientzia artikulua?

Bai, batzuk argitaratu ditugu. European, nirearen antzeko ikerketak egin izan dituzte Frantzia eta Herbeheretan, adibidez; gu EAEko datuak biltzen ari gara. Munduan toki guztietan dago hedatua gaixotasun hori eta zenbat eta herrialde gehiagotako informazioa izan, orduan eta hobeto ezagutuko dugu Q sukarraren kutsadura eta gaixotasuna ez hedatzeko neurriak hartu ahal izango ditugu.

Hala ere, aurreko galderara itzulita, tokatu zait bai mendiko botak jantztea, ahuntzen artean ibiltzeko!

Zure bakterio horren bila?

Bai. 2021ean Q sukarraren agerraldi bat izan zen, Bizkaiko kobazulo batean. Sonatua izan zen, ehunka bisitari gaixotu zelako eta horietako askok ospitalea behar izan zutelako, sendatzeko. Hartan mendiko botak, buzoa, musukoa eta eskularru bikoitza jantzita ibili ginen. Animalien gorotzak hartu genituen, kobazulo harrietan zegoen hautsa eta airea aspiratu genuen. Ingurune hori perfektua zen *Coxiellarentzat*, hautsez beteta zegoen eta kobazuloan edozein sartzen zenean, hauts hori harrotu egiten zen eta bakterioa arnas-aldi bakoitzean sudurretik edo ahotik gorputzera sartzen zen. Kontuan izan, *Coxiella* bakar bat nahikoa da infektatzeko.

Baina ez beldurtu, agerraldiak oso gutxitan egoten dira eta normalean leku bati mugatzen dira, baserri batera edo.

Hortaz, ordenagailuaren aurrean egiten duzu lan, bata jantzita gehienetan, botak ipinita noizbait... gorbata noizko?

(Berrito barre) Kongresuetara eta hitzaldietara, dotore joaten naiz! Dena den, 2019an hasi nintzen *Coxiella* ikertzen eta bada bukatzeko garaia. Urte

ONE HEALTH = OSASUN BAKARRA

Hiru hanka dituen terminoa da. Batetik, pertsonen osasuna; bestetik, gainerako animalien osasuna; azkenik, ingurumenaren osasuna. Osasun Bakarra-rentzat hirurak bat dira. «Ingurumen desorekatuan, animalia- eta giza-gaixotasunak handitu egiten dira eta, gainera, gaixotasun horiek espezie batetik bestera saltatzeko arriskua handiagoa da» argitu digu Ionek. «Gaur egun, gaixotasun infektzioen % 60 animaliekin partekatzen ditugu. Gaixotasun horietako bat nire lanean ikertu dudana Q sukarra da». Horiei aurre egiteko, Osasun Bakarrak ikuspegi zabala proposatzen du, «garrantzitsua da profesionalen arteko elkarlana, direla albertariak, medikuak, epidemiologoak, biologoak...».

Gaiari buruz gehiago jakin nahi duenarentzat: <https://www.cdc.gov/onehealth/index.html>

“EAEko datuak biltzen ari gara. Mundu guztian dago hedatua gaixotasun hori eta zenbat eta herrialde gehiagotako informazioa izan, orduan eta hobeto ezagutuko dugu Q sukarraren kutsadura eta neurriak hartu ahal izango ditugu”

bukaeran amaitzeko asmoa daukat eta datorren urteko hasieran emaitzak aurkeztea espero dut. Tribunal baten aurreran defendatu beharko ditut, beraz, ondo jantzita joan beharko dut. Hala ere, ez dut uste gorbata jantziko dudarik.

(Oraingoan guk egin dugu barre)

Zein hizkuntzatan egiten da hori?

Hemen, tesi-ikerketak gehienak gaztelaniaz edo ingelesez defendatzen dira. Euskaraz, geroz eta gehiago, baina askotan euskara eta ingelesa erabiltzen dira, edo euskara eta gaztelania, defentsaren lehen erdian hizkuntza batean

eta beste erdian bestean, adibidez. Hori eginez, euskarako C2 titulua ematen dizute. Nik, ordea, guttia euskaraz egitea erabaki dut, argi nuen, nire amahizkuntza delako eta euskaraz seguruago ikusten dudalako nire burua, gaztelaniaz edo ingelesez baino.

Horrek esan nahi du tribunalak euskaraz jakin behar duela?

Hasteko, zure ikerketaren zuzendariak euskara jakin behar duela! Nirea, Zaragozako bada ere, euskaraz badaki. Hala ere, lehenik gaztelaniaz idatzi dut, berak gaztelaniaz zuzendu ahal izateko eta behin betiko bertsoa lortzen dugunean, euskaraz berridatziko dut.

Ondoren, tribunalerako hiru lagunek euskaraz jakin behar dute eta, aldi berean, nazio arteko adituak izan behar dute gaian. Hemengo adituek nirekin egin dute lan eta horregatik ezin dute tribunalean parte hartu... Txarreanean, itzulpen zerbitzua jartzea badaukagu. Hala ere, tribunaleko hiru lagunak aurkitzeaz zuzendaria arduratzen da, ez ni!

Tribunala, tesiaren defentsa, abendura arte idatzi behar duen guztia... gure asmoa ez zen lon urduritzea eta ezustean harrapatzeko moduko galdera egin diogu: adimen artifizialik erabiltzen al duzu zure lanean?

(...eta harridura aurpegia jarri du, bai horixe!) Ez, gure kasuan ez. Badakit gaur egun gauza askotarako erabiltzen ari direla. Guk softwareak eta estatistikako programak eta erabiltzen ditugu, baina adimen artifizialik ez.

Albaitari batentzat Igeldo erakargarria al da?

Nik uste dut baietz, baina gaur egun ez dira garai batean bezala, Igeldo bezalako eremu txikiak mugatzen. Gaur egun, edo kontsulta bat irekitzen duzu eta jendea bertaraino etortzen zaizu maskotekin, edo zu zeu joaten zara ustiategiara, baina eremu zabalagoan; Igeldora datorrena, adibidez, beste hainbat tokietara joaten da, Gipuzkoan. Igeldo txikia da.

Horrela ikusten duzu zure burua hemendik 5-10 urtera?

Uf, oraindik ez dakit zer egingo dudan, baina agian laborategi batean ikusten dut nire burua. Ez du zertan ikerketan izan; izan daiteke ospitalean-edo. Azken batean, erabiltzen ditugun teknikak oso antzekoak dira eta. Argi dudana da Euskal Herrian bizi nahi dudala eta ahal dela familiatik hurbil.

Eta nola ikusten duzu Igeldo, hemendik 5-10 urtera?

Ez dakit, baina munduan orokorrean ikusten den joera da ustiategiak geroz eta gutxiago daudela eta geratzen diren horiek geroz eta handiagoak direla.



MOTZEAN

Igeldoko gustuko txoko bat? Arrokkak.

Igeldoz kanpoko beste bat? Bilboko zazpi kaleak, orain han bizi naizelako.

Zaletasun bat? Ezkutukoa izan daiteke... Crossfita.

Zer duzu kurrikulumean harro edota pozik sentiarazten zaituena? Albaitaritza titulua, 5 urte horretan eman nituen eta!

Nola zuen izena zuen txakurrak? Beltxa.

Zertaz hil zen? Zaharra zelako.

Diagnostikoa zuk zeuk egin zenion? (Kar kar) Ez, txikia nintzenean hil zen eta.

Animaliarik gogokoena? Txakurra... eta behiak, azken hauek gehiago bizi izan ditut eta.

Amets bat? Txikitan zen Afrikan, safari batean, animaliak zaintzea eta tratatzea... oraindik ez dut bete.

Meteorologikora eta Añorgara bisita egin dute jubilatuek

Jubilatuek bi bisita egin dituzte azaroan eta horien berri eman dute.

«Askotan urrutira joaten gara, inguruko altxorak ezagutu gabe. Azaroaren 15ean, Jubilatuen Elkartetik 25 pertsona joan gara Igeldoko Meteorologi Behatokia ikustera. Hau 1905. urtetik, Europako museo aktiboetako bat da, eguraldia eta itsasorearen gorabehera guztiak gordetzen baititu sistematikoki. Egunero, egunez eta gauez, haizea, hozberoa, hezetasuna, presio atmosferiko eta abar neurtzeko dauzkaten tresnen datuak jasotzen dituzte. Nahiz eta gaur egun tresna elektronikoak jarri dituzten, lehengo merkuriozko termometroen erregistroak direla fidagarrienak dio Margarita Martin AEMET Euskadiko zuzendariak. Abenduak 13an, asteazkena, Margarita Martinekin berriro gelditu gara. Oraingoan, Behatokiaren historia



ezagutzeko hitzaldia emango digu. Margaritak adierazten duen jakinduria benetan interesgarria da».

Bestalde, Añorgako Rezola Museoa eta Eliza ikustera joan ziren. «25 pertsona joan gara azaroaren 8an. Museo hau Luis Peña Ganhegi arkitektoaren zuzendaritzapean 2000. urtean eraiki zuten, Rezola

fabrika sortu zenetik 150. urtemuga ospatzeko. Añorgan, 1917an eraikitako Karmengo amaren parrokia ere ikusi genuen. Nahiz eliza berria izan, bertan artelan interesgarriak daude, Julio Beobideren bi eskultura eta gaur egungo margolan handi batzuk paretetan. Jarraituko dugu inguruak miatzen», adierazi dute.

Txangoak, bertsoak eta ospakizunak, hiruhilekoa bukatzeko

Eskolako lehenengo hiruhilekoa bukatzeaz da. Hiruhileko honetako proiektuaren izena honakoa da: *Nor bizi da hemen?* Eta izaki bizidunekin erlacionatutako lanak egiten ari dira.

Proiektuarekin lotutako txangoak ere egin dituzte. Gela guztiak Kristina Eneara joan dira tailer desberdinak egitera. Horrez gain, 2. ziklokoak musika emanaldi bat entzutera joan ziren Atotxara.

Beste irteera bat ere egingo dute 3. zikloko ikasleek abenduaren 12an. Bertso emanaldia ikustera joango dira Lugaritzera eta gai jartzaile lana egingo dute.

Ospakizunak, agurtzeko

Azken aste hauetan, ospakizunerako



tartea izango da. Abenduaren 4ean Euskararen Eguna ospatu zuten. Goizean, tailer eta jolas desberdinak egin zituzten eskolako ume guztiek talde desberdinetan banaturik. Arratsaldean, pelikula saioa izan zuten.

Abenduaren 21ean, azken egunean, herritik zehar abestera aterako dira urtero bezala, eta ondoren, guraso elkarteak antolatutako luntxa izango dute hiruhilekoari amaiera emateko.

UDAZKEN FESTA

Giro polita, beste behin

Urriaren 20, 21 eta 22an Udazken Festa ospatu zen eta beste behin ere giro polita izan zen nagusi. Hodei Magoaren ikuskizunarekin gozatuz hasi zen ospakizuna. Txundituta geratu ziren gerturatutakoak emanaldiarekin. Larunbatean gaztainak hartu zuen protagonismoa. Lehenik, 35 bat ume eta helduk ibilal-ditxoa egin eta gaztainak bildu zituzten. Ondoren, gaztain erreak jateko aukera izan zen plazan. Igandea izan zen egun nagusia. Azoka egon zen goizean, 23 posturekin. Denetik erosteko aukera izan zen! Tartean, Oliba Jaitsiera egin zen eta Ekain Martikorenaren oliba izan zen azkarrena; Jon Urangarena, berriz, mantsoena. Jubilatua omentzeko bazkariak ez zuen hutsik egin eta 156 heldu eta 9 ume elkartu ziren mahaiaren bueltan. Eguna eta festa borobiltzeko, talo mundialak jateko aukera izan zen!



GAU BELTZA



Miel Ero, Maritxu Saroi eta Don Martzelino Txisturen istorio beldurgarriak...

Agerian da, Gau Beltza indarra hartzen ari dela inguruko bazterretan. Aurten, Igeldon inoiz baino haur, gazte, guraso, heldu... gehiago elkartu ginen plazaren inguruetan. Programa oparoaz gozatzeko aukera izan genuen, urteko arratsalde eta iluntze beldurgarrienean. Hala esan eta hala izan zelakoan gaude, ilunabarreko 20:00ak inguruan garrasi galantak entzun baitziren herri inguruko txokoetan.

Arratsaldeko 16.30tarako hasi ziren plaza apainketa eta aurpegi margoketak. Ondoren, eskolako aretoan ipuin kontalariaren ahotik entzun ahal izan ziren istorio misteriotsuak.

Ondoren, hildakoen kalejirak beldurrarazi zituen inguruak. Denak mozorrotuta eta kandelak eskuan egin genuen plaza inguruan bira, aurrean musikatutako autoa genuela.

Gero etorri ziren beldurkeria handienak.....txikienek altxorraren bila zirraragarria izan zuten eta handienek... TXAN, TXAN TXAN... Miel Ero, Maritxu Saroi eta Don Martzelino Txisturen Istorio beldurgarri antzez-tuez gozatu zuten. Bueno... gozatu edo... JA, JA JA!!! Istorioak plazan izan zuen hasiera. Ondoren, basora, zelaira, herriko karrika estuetara zabaldu zen. Susto eta garrasi izugarriak izan ziren. Bada haurrik gauean amets gaiztoak izan zituenik... ez da ez harritzekoa!!!

Azkenik, gaua borobiltzeko, hanburgesa ederrak DENONTZAT!!

GABONAK IGELDON 2023

- **ABENDUAK 16**, 16:30etan ENTSEGUA ETA TAILERRA
- **ABENDUAK 17**, 16:30etan ENTSEGUA ETA MERIENDA

- **ABENDUAK 24**, 13:30etan gabon ESKEA-ren hasiera plazatik.
20:00etan Olentzero eta
Maridomingiren etorrera
- **ABENDUAK 31**, 13:30etan gabon ESKEA-ren hasiera plazatik.



OHARRA

Iritzi-artikulu argitaratzeko ezinbestekoak dira: egilearen izen-abizenak, kontaktu-bide bat, testua euskarazkoa eta inolako asmo iraingarririk gabekoa izatea. Bestalde, Orri Informatiboak ez ditu bere gain hartzen atal honetan esaten direnak.

Inork iritzi-artikulu bat bidaltzeko interesik balu, hurrengo aleak martxoan eta maiatzean izango dira (igeldokoorria@gmail.com).